

3-Baloretzko proposamena

Gure proiektua ohe bizkorra egitean datza. Ohe honen funtzioa da gaixotasuna duten pertsonen konstante bitalak neurtzea eta osasunean alterazioak gertatzen badira zuzenean ospitalera deitu edo zer nolako arazoaren arabera ohea automatikoki gaixoa laguntzea. Adibidez: gaixoaren gorputzeko temperatura igotzen bada, ohea automatikoki ingurugiroa hozten du eta honek aguntzen du bere temperatura jaisten.

Gure produktua onura asko eskaintzen dio bezeroari, esan dugun moduan arazoak dituzten pertsonentzat zuzenduta dago. Pertsona hauen eguneroko bizitza erresago eta erosoago egiteko sortu dugu. Teknologia berrienetarikoa erabiliko du gaixoaren mugimenduak errazteko. Mugikor bizkorra ere izango du gorputzeko konstanteekin lotuta larradiekin kontaktu egiteko emergentzia egon arren.

Gure produktua, atsedenaldiaren mundua berriztuko duen aparatu edo gailua izango da. Ohe honen bidez, gure bezero guztiek askoz seguruago egongo dira, lo egiten duten bitartean. Gure ohearen berezitasun nabarmena, ohe inteligente bat dela izango lirateke. Bere barruan duen sistema bizkorrari esker, gaixoa dituen behar guztiak azetu ahal izango ditugu.